

Libenet sortu dute, iraultza digitalean "argitaletxeen bidelagun" izateko asmoz

**Liburugintza sektoreari edukiak garatzeko eta banatzeko tresnak
eta aholkularitza eman nahi dizkio enpresa berriak**

AINHOA SARASOLA. DONOSTIA

"Iraultza sakona gertatzen ari da liburuen munduan. Teknologia berrien bitartez, digitalizazioa eta paperaz besteko euskarriak lekua hartzen ari dira, eta liburu elektronikoak dira horren lekuko argiena. Euskal liburugintzaren industria hasia da bide hori ibiltzen, baina oraindik ere aldaketen "historiaurrean gaudela iritzita, aholkularitza eta zerbitzu teknologikoak emateko asmoz, Libenet enpresa sortu dute. "Gertatzen ari den iraultzan, Libenet sektore editorialaren bidelagun izatea nahi dugu, Alexis Mindegia arduradunaren hitzetan.

Liburuaren munduko eta teknologiaren alorreko lau enpresak sortu dute Libenet, elkarlanean: Erein eta Alberdania argitaletxeek, Bitarte banaketa etxeak eta Adimedia teknologia enpresak. Egitasmoa Euskal Herrian sortu bada ere, kanpoan ere eskaini nahi dituzte enpresaren zerbitzuak. Argitaletxe, liburu denda, liburutegi publiko eta bestelako erakundeei begira lan egiteko xedea dute.

Liburu elektronikoa da Libeneten lehen ardatza. Mindegiaaren ustez, tresna berriaren bitartez eraldaketa sakona izango dute egungo produkzio, banaketa eta erosketa sistemek, bai sare berriak sortuko direlako, bai irakurleen kontsumoa aldatuko delako. Libenetek argitaletxeei bide berriak jorratzen lagun diezaiekeela dio Mindegia, baita funtsak digitalizatzen ere. "Argitaletxeek digitalizatuta dauzkate azken urteotako liburuak, baina liburu elektronikorako euskarrira egokitu behar dituzte, bai egungo irakurgailuentzat, baita etorkizunean sor daitezkeenentzat ere.

Aholkularitzari dagokionez, argitalpen digitalen azterketak, gaitasun digitalei buruzko prestakuntza, liburutegiak digitalizatzeko planak, produktu digitalak merkaturatzeko proposamenak eta irakurgailuei buruzko informazioa eskaintzen dituzte. Teknologiari lotuta, berriz, produktu digitalak argitaratzeko eta e-banaketarako zerbitzuak, testuen digitalizazioa eta dendak sarean garatzeko diseinuak jarri nahi ditu bezeroen eskura, besteak beste.

Beste herrialdeetako bilakaera aztertuta, euskal liburugintzaren sektorea ez dela inolaz ere atzean geratu uste du Mindegia; liburu elektronikoa garatzeko argitaletxe batzuek "pauso nabarmenak eman dituztela eta irakurleen beharrei erantzuteko gertu daudela dio. Bide horretan aurrera egiten jarraitzeko, laguntza eman nahi die enpresa berriak.